

FERMIN IRIBAR  
SAN ROKE 36-1

# kale

*Elgetako aldizkaria martxo 44zk.*

# Goibek

# 44 aile

*Maderas Gallastegi, s. a.*

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrió (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

Goibekokale aldizkariko 42. alian "Elgeta 2.000" izenburuaz, Elgetako alkate den Patxi Basaurik hurrengo urteetarako dituen asmoen berri jakin genuen.

Artikuluak irakurtzen hasteaz bat "Asentzioko parkea: Anbizio handidun proiektua" jorratzen da. Bertan, egia esan hauspokeri eta lekuz kanpo dauden hainbat deklarazio irakurri ondoren, eta artikulua hasieran aipatzen diren ikamiken islada izan nahirik, berriz ere Angiozarko Bailarako Batzarrak Elgetako alkate den Patxi Basauriri erantzun nahi dio.

Patxi Basauri jaunak dioenez polemika guztia artifiziala eta manipulatuak izan zen; badi-rudi, beraz, norberak bere lur-sailak eta bizimodua defendatzea era manipulatuak jokatzea dela. Gauzak hasieratik argi eta garbi utzi behar direla uste dugu:

Denok uste dugu horrelako gune baten erabilera arautu egin behar dela eta hori hasieratik daki Basauri jaunak. Baina inondik inora ezin da onartu horrelako "parkea" martxan ipintzea (berdeguneak baino hormigoi gehiago izatea, benetako balorea duten guneak moldatzea eta urbanizatzea, neurri handi batean bizimodua bertatik ateratzen duen base-rria kolokan jartzea eta bertako produkzio forestala baldintzatzea)

Inguru honek duen balorea jabeek berari eman dioten erabileran datza eta gaur egun erakargarria bada beraien lanari esker da. Beraz, uste dugu Basauri jaunak ironia puntu dezentez erabiltzen dituen hitz horiek, ez dutela beraien lana errekonozitzen.

Asentzioko "parke rural" honetan afektatuak izango diren lur-sailen jabeek ez zuten ezen berririk izan proiektua ondo lotuta egon zen arte eta hilabeteko epea baino ez zuten izan, alegazioak aurkezteko (inoiz ez zirenak kontuan hartuak izan).

Espropiatzen diren lur-sailen jabetzari dagokionez, 432 m<sup>2</sup> (%0,84a) Elgetako Udalarenak dira eta gainontzeko guztia (%99,15a) elgetarrak ez direnak (Angiozarkoak eta Uberakoak). Beraz, horrelako proiektu bat diseinatzeke orduan uste dugu badagoela zer azaldu, adostu eta erabaki.

Proiektu honek izan duen prozesu "korapilatsua" (alegazio epe txikiak, pleno istilutsuak, errekurtsioak, etab.) ez da oraindik amaitu eta Estatuko Epaitegi Gorenak sententzia eman arte ez dugu jakingo zein izango den Asentzioren etorkizuna. Baina sententzia parkearen aldekoa izango balitz ere, proiektua berraztertzea eta afektatuak diren alde guztien iritzia kontutan hartzea izango litzateke egokiena, jendearen iritziaren aurka doazen inposizioak lehenagoko erregimenaren kontua direla uste baitugu.

Angiozar Bailarako Batzarra

**oharra: ale honetako kartek duten luzera eta garrantzia baloratuta 13. orrialdean jarraitzen dute. Kontuan har, bide batez, ia alero azpimarratu duguna, ez dela komeni kartak 15-18 lerro baino gehiagoko luzera izatea.**

## Goibekokale independentia da

Aurreko alian aldizkarixan independente izatia dudak ipintzen eban HBko kartian gainian esan nahi dogu inoiz baiño seguruau garela gure izate independentiakin.

Aurreko aleko erreportajiak ez ekan inungo kutsu elektoralik, erreportajia Udaletxian egitteko diran proiektuen gaiñian informatzeko izan zan, Udaletxian proiektuak, ez EAJnak ez HBnak. Herrixak oiñ badaki proiektuen barri, berak pentsau deixala ondo daren ala ez.

Honek aldizkarixonek beti bulztatu dau adierazpen askatasuna. Beti errespetau dittu agertu diran eritzixak eta iñoi ez dotsa itxi atek bere eritzixa adierazteko. Hau ez dabenak holan ikusten karta bat idazten hasi aurretik esatia dakala nun daren mugak.

Beti be pozgarrixa da Goibekokale etxe guztietan irakurtzen dala jaktzia. Hori aipatzearren eskerrikasko.

Esan baitta be, lantalde osua beti alegintzen dala notizia eta erreportajiak zabalak eta jende ezberdinan iritzixa kontuan hartuta egitten. Hala ta be, bai alde bateko harrikadak bai beste-kuak jasotziak esangurako dau zeozer.

Amaitzeko, esan, danon helburua hilero Goibekokale hobia etaratzia dala, alde guztietatik datozen kritika destuktibuek ez dabela honetan bape laguntzen eta destruidu biharrian konstruitzen hastia izango dala onena.

Goibekokaleko Erredakzio Kontseilua

AENOR

**ER**

Empresa Registrada


ER-714/2/96

*Estampaciones* **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatuak.



Salvador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



## Zikinak gara

**E**z dakit, komunikabide-  
en eraginez edo, ingu-  
runearen osasunaz  
gehiago arduratzen naizen  
ala ez, baina gizakiok gero eta zikinagoak gara  
iruditzen zait.

Aurten, aspaldiko partez, egun osoko  
ospakizun askotan izan naiz: herri urrats, kilo-  
metroak, ibilaldia, Araba eta Nafarroan,... eta  
ikustekoa da egunaren amaieran jaiaren guneen  
itxura: LOTSAGARRIA! kontenedore eta poltsetan  
beste zakar lurtean ikusten da. Eta inguruan  
erreka edo antzekoren bat badago, zer esanik ez.

Kasu hauetako zikinkeriaren errudun  
zuzenak gara gazteok. Orokorrean, jasotako  
heziketa (kutsadura moeta honi dagokionean  
behintzat) egokia izan dela uste dut eta beraz,  
honelako kakatza bat, gure arduragabekeria eta  
lotsagabekeria oinarritzen da. Nork esan deza-  
ke ez duela basorik edo paperik lurrera bota  
honelako egunetan? ez dugu kontuan hartzen,  
askoren artean sakabanatutako zikinkeria gutxi  
batzuen artean jaso beharko dutela.

Hurrengo baterako, bakoitza bere kon-  
promezetuxoa hartzera gonbidatzen zaituztet. Ni  
neu, prest nengoke bozgoragailuetatik, bost  
minututik behin, garbiagoak izan gaitezen eska-  
tzeko edo eta betetako zakarrontziak usteko.  
Zikindu ezik ez dago garbitu beharrik, eta gogo-  
ratu, garbiena ez dela gehien garbitzen duena,  
gutxien zikintzen duena baizik.

Iban Retolaza



## Zoriona

**A**zken denboraldian,  
denen ahoetan dabil-  
tzan berbak hauek  
dira: maitasuna, pertsonen  
eskubideak, askatasuna, pakea... eta hitz denok  
bat datoz beste honekin "zoriona".

Zoriona, nere ustez, maitasuna edo aska-  
tasuna bezain garrantzizua da, biak loturik bai-  
taude.

Zoriona bizitzan zehar lortu nahi dugun  
helburu nagusia izaten da, baina, hala ere, hitz  
honen esanahia ez dakigu. Hain berezia da bakoit-  
zaren pentsakera...

Batzuen esanetan oso zaila omen da  
zoriontsu izatea orain eta hemen, nahiz eta behar-  
beharrezkoa dugula argudiatu.

Zoriontsua izateko, bakoitzak dugunare-  
kikin moldatu edo konformatzea dela aipatzen  
da, eta nola ez baita baikorra edo positibista izate-  
a ere, baina askok positibista izatea ameslari izate-  
arekin nahasten dute.

Zer desberdintasun dago baikor eta  
ameslari hitzen artean?


Baikorra izatea guk nahi duguna lortzeko  
lana egin eta horrela izango dela sinistea da.

Ameslari izatea nahi dugunari pasiboki  
itxoin eta lortuko dugun itxaropena edukitzea da.

Betidanik esan da, uztaro ona izateko  
bere gaiaian erein ez ezik, ura, simaurra eta onga-  
rriak bota ere egin behar direla. Guk ere berdina  
egiten badugu eguneroko harremanetan seguraz-  
ki zoriona hurbilago edukiko dugu.

Oso desberdinak gara pentsatu arren,  
ez da egia. Izan ere, denok berdinak gara eta gau-  
za bera bilatzen gabiltza, maitatua izatea, zorion-  
tsu izatea. Hau da ZORIONA. Helburu hau lortzeko  
saia gaitezen baikor eta bihotz zabal izaten.

Maria Elena Eztenaga

 **kutxa** fundazioa  
fundación



Eusko Jauriaritzako  
Kultura sailak diruz  
lagundutako aldirakaria



Aldizkari honek  
Elgetako Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honen  
argitaratzailea

### GOJBKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.  
**Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz  
Gallastegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka  
Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketa-  
zioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizis-  
tak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena  
Eztenaga, Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).  
**Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.  
**E-mail:** goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldirakarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzunkizunik.

## Ttapi-ttapa ttapi-ttapa, zu eta ni euskaraz

Martxoak 28an, Donostian, festa giroko amaiera Korrika 11ri

Aurten, Korrika Elgetatik pasatu ez bada ere, ugari izan dira inguruko herrietara joan diren euskaltzaleak. Korrika ofiziala pasatu ez arren, herriko kaleak euskararen aldeko oihuz bete zituzten korrika txikian parte hartu zuten haur eta helduek. Korrika kulturalak ere izan du oihartzuna herrian, Gaztetxeak eta Udaletxeak antolatutako ekintzatan.



Batzuk korrikarako adinik ez dagola erakutsi ziguten.



Euskararen aldeko manifestua irakurri zuten.

## Bakea eraikitzen Euskal Herriak du hitza lemapean jende ugari

100 lagun baino gehiago bildu ziren martxoak 26an "Bakea eraikitzen Euskal Herriak du hitza" lemapean herriko plazan egindako kontzentrazioan. Lizarra-Garaziko akordioa sinatu duten alderdi politiko eta erakunde sindikalek beste zenabait ekimen ere aurrera eramango dituzte. Apirilak 10erako manifestazio bat antolatu dute Bilbon, arratsaldeko 17:30etan. Apirilak 12rako, eguerdiko 12:00etatik aurrera, ordu bateko lanuztea egitera deitu dute.

Euskal hiritarren

borondate askea, inork ez dezan ordezkatu eta eragotzi mobilizazioan parte hartzeko dei egin dute Lizarra-Garazi osatzen duten alderdi eta sindikatuek.



Lizarra-Garazikoak bildu ziren herriko plazan.

### Apirileko ekintzak Gaztetxean

Jende guztiarendako ekintza programa antolatu dute Gaztetxeoek apirilerako.

Apirilak 8an gaueko 22:00etan pelikula eskainiko da. Apirila 16rako Guatemalari buruzko diapositiba emanaldia antolatu dute.

Apirilak 18an, domekia, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, "El Corsal desastre" ikuskizuna. Ikuskizunean ipuinak, poesia eta kantu desberdinak izango dira.

Apirilak 23an, ULER 600 (Mendaro) eta BOL (Lodosa) taldeen kontzertua izango da.

Apirilak 25ean, arratsaldeko 17:00etan "Bagdadeko lapurra" pelikula izango da hurrentzat.

Hilabeteko ekintzei amaiera emateko, Asier Serrano etorriko da Gaztetxera apirilak 30ean, gaueko 22:00etan "Serrano literaturatik musikara" emanaldia eskaintzera. Berak izandako esperintziak kontatzeaz gain bakarka kantatuko du.

### Ibilaladirako jende bila

Ekainak 6an Bizkaiko Ikastolen aldeko jaia izango da Elorrixon. Hori dela eta Elorrixotik laguntza eske etorri dira Elgetara, eguna aurrera eramateko ezinbestekoa baita inguruko herritarren laguntza. Kontuan izan 2.500 lagun behar direla.

Hori dela eta, 60 lagun behar dira area bat hartzeko. Izena lehenbailehen eman behar da Haizean. Areako barran egin beharko da lan eta bi turno egingo dira, goizekoa eta arratsaldekoa aukeran.

GRUPO  
**IFA**  
Produkturik onenak,  
prezio onenean  
**ALDI**  
Tel:  
76 80 98.

Andoni Bolinaga  
METALAK  
FS718  
Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA

## Mendi Federazioaren 75. urteurrena

Maiatzak 23an 5.000 mendizale baino gehiago bilduko dira Elgetan

Maiatzak 23an F.V.N.A.-ren 75. urteurrena ospatuko da Elgetan. Hori dela eta ekintza ugari antolatuko dira etorriko diren 5.000 lagun baino gehiagorentzat.

Iazko abenduak 20an Aralarren abiatutako bost makilak Elgeta izango dute helmuga. Euskal Herriko mendi mordoxka igo dituzte hainbat elkarteren eskutik. Amaiera jendetsua izango da Elgetan.

1.924ko maiatzaren 18an F.V.N.A. sortu

zen Elgetan. 75. urteurrena ospatzeko, batzordea osatu da herrian, Udaltxe elkarte eta norbanakoei osatua Federazioarekin batera ekintza antolatu.

**Oskorriren pub ibiltaria**  
Maiatzak 22an, Oskorri-ren Pub Ibiltaria izango da frontoian. Maiatzak 23an, anaiarteko festa ospatuko da. Anaiarteko festa honetan Euskal Herri osotik etorriko diren elkarrekin hartuko dute parte.

Egitaraua goiz goizetik hasiko da. Asen-

tzion meza izango da goizeko 11:00etan. Asentziotik herriko plazara jeitsiko dira mendizaleak bertan Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak izango direlarik entzungai. Elgetako eta Elgoibarko Huritzeko dantzariak eta Elgoibarko txistulariak ere izango dira, ETBk zuzenean grabatuko ditu eguerdian izango diren ekintzak zuzeneko programa egitekotan baitira. Ondoren bazkaria izango da frontoian 600 lagunentzako.

Bazkal ondoren Federazioak sariak banatuko ditu. Arratsaldean Maixa eta Ixiar trikitilariak izango ditugu plazan, egunari amaiera emanez.

Antolatzaileek 5.000 lagun baino gehiago espero dituzte. Beraz Kanpazar eta Bergarako bideak mozteko asmoa dute. Bertatik Elgetara etortzeko autobusak jarriko dituztelarik. Gaur egun 69 mendi elkarte daude Euskal Herrian, beraz bilduko den jendetza izugarria izango da.

## 3 Urte bete ditu gaztetxeak

Martxoak 20an ekintzaz beteriko hilabeteari amaiera eman zioten



*Janariak ez zuen asko iraun plateretan.*



*Gaztetxeoak jolaserako prest*

Antzerkia, kontzertuak, hitzaldia... denetik izan da martxoan Gaztetxean. Urteurrenari amaiera emateko egin zuten bazkarian 50 lagun bildu ziren. Bazkariko makarroiak eta oilaskoa jan eta gero, egindako jokuak oso arrakastatsuak izan ziren. Oraindik batenbat mareauta ere egongo da.

Iluntzian poteua eginda, Bartzelona eta Azpeitiko taldeak eskainitako Ska jaiak amaiera eman zion 3. urteurrenai. ZORIONAK!

Leku paregabea,  
eguneko menua  
Tel: 943 76 82 83  
Astehenetik ostiralera  
zabalik goizeko 9:00etatik

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA  
Eguneko menua 800 pzta.  
Karta.

## Udaberriko erritoetan sarturik

Elizamendiko Ama Birjinaren jaia ospatzearekin udaberriari hasiera ematen zaio, sinbolikoki emankortasunaren urtaroren hasieran ume eta emakume haurdunen zaindariaren bedeinkazioa hartuz. Aurten ere dei horretara ez da hutsik egin eta jende mordoxka hurbildu zen martxoaren 25eko bedeinkaziora. Nahiz eta jendearen gogoan ospakizuna Elizamendin bertan egiteko desioa egon, oraingoz horrela jarraitu beharko da, instituzioek parte hartzeko erabakia hartu arte.

Eta bedeinkazio batetik bestera. Erramu domekan ere ez zen falta izan kurutzeixaz egindako erramu dotorerik, bere elauztz eta erramu erramileteko buruekin. Solo eta ortu guztien babeserako dagoeneko jarriak egongo dira kurutzeok. Ea orain lanak eta eguraldiak beste guztia egiten duten.

Aste Santuaren bukaeran



*Elizamendiko Andra Mari, ume eta emakumeen zaindari.*

bazen beste errito polit bat azken hogeit urteotan galdu dena: Su bedeinkatuaren banatzea etxerik etxe. Nahiz eta etxerik etxe banatu ez, Zapatu Santuz elizkizunera hurbiltzen denak hartu eta etxera eramateko aukera izango du bai sua eta baita ur bedeinkatu berria ere.



*Erramu domekako bedeinkaziora eramandako sortak ugari izan ziren.*

**Abiadura Haundiko Trenaren aurkako manifestaziorako deia**  
Datorren apirilaren 17an, zapatua, AHTaren aurkako asanbladak deituta manifestazioa izango da Donostian. Manifestazioaren helburua Tren moeta hau zaltzatzan jarri eta garapen zentzuzkokoago bat eskatzea izango da.

Angiozartik egin diren alegazioak ere dexente izan dira eta kontutan hartuak izan daitezkeen eskatzeko aukera ederra izango da manifestazio hau. Denok zaudete deituak bertara!

### Angiozarko bira

Zikloturisten ohizko irteera hau ospatzeko eguna hurbiltzen doa, beti bezala maiatzaren batean korritzea espero delarik. Interesatuta zaudetenok adi egon Ortzijatetxean ipiniko den itinerario eta izen emateko orriari.

### Zugarramurdi eta Sarara irteera

Eskolako Guraso Elkartekoak Sara eta Zugarramurdiko koba zuloak ikusi eta bertan eguna pasatzeko eskurtsioa antolatzen dabilta. Interesa duen edonork joateko aukera izango du eta lekua hartu ahal izateko joan izenak ematen lehen bait lehen.

### Frontoiaren izena

Frontoia bukatzeko bi hilabete besterik falta ez direlarik izena ipini behar zaiola eta proposamenak onartzeko zabalik dago Angiozar Bailarako Batzarra. Proposatzen den bat lekuaren izena bera ematea da, hau da, Angiozarko "Arbiaska Frontoia", alboan duen aska dela eta. Dena den beste proposamenik inork baleuka esan besterik ez du.

# ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201




# HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA

Markoxek egiñ eban  
lastozko zubixe,  
bertatik pasatzeko  
bera eta txarrixen...



Halaxe da bai, txarrixen zana argazkixan agertzen zana, bueno, argazkixan ageri dan lau hankakua txarrixen zana. Hain zuzen be, Gaztetekuek erabili ebena errifau eta etaratako dirua Mich-en kalte-tuentzako bialtzeko. Konfirmau geinke dirua allegau dala eta esker-rak emon dittue gaiñera.

Ondo erantzun dau M<sup>a</sup> Uribarri Gallegok. Erantzun zuzena emotearren Goibekokaleko bi kami-seta eruango dittu etxera. Zelako zori ona euki daben!



Oiñguan asmau biharrekua be ez da zailla. Ze demondre da hau? Kontuan izan erantzuna zehatza izan bihar dala. Animo!!!! Hurrengo kami-seta paria zuretzako izan leike.

Badakizue nun garen: Goibekokale aldizkarixa Kultur Etxian, Elgeta (Gipuzkoa).



# Aste Santuan zer egitteko asmua dakazu?



Kontxi Bolhaga  
Bihargiña (54 urte)

Ez dakat kanpora fateko asmoik. Hemen inguruan ibiltzia pentsatzen dot. Biharbada Mutrikura fango naiz, baiña hemen nagon egunetan mezetara fan ta holakuak egitteko asmua dakat.

Ez dakat plan berezirik, Nafarruara fateko planak egitten ibilli gara, baiña seguru ez dakitt. Etxian gelditzekotan hemendik mobitzeko asmua dakat.

Nagore Belar  
Bihargiña (23 urte)



Emilio Rubio  
Bihargiña (42 urte)

Kanpora fateko asmua dakat, Toledon familixia dakat eta hara fatia pentsatzen dot. Dana dala, aurten Aste Santuan barik, hurrengo aste bukaeran fango gara, Aste Santuko proresiñuak askotan ikusitta dakauzelako.



Elena Orueta  
Etxekoandria (35 urte)

Seguruenik hemen inguruan ibilliko gara. Deskantsau eta fameli-xiakin egon, ez dakau iñora fateko asmoik.

Kanpora fateko asmua badakat lagunekin, baiña hurrin fateka. Errioxara fateko intenziñua badakat, "derby"ra be seguruenik fango naiz.

Luis Atorrasagasti  
Bihargiña (28 urte)



Juan Luis Garcia  
Bihargiña (42 urte)



Seguruenik egun batzuk Sorian pasauko dittugu, bi edo hiru egun, Soria ikusi, monumentuak ikusi eta ...

**Iragarri zaitez.**

Tel: 78.90.85

Faxa: 789043

Tel: 76 81 31  
M<sup>a</sup> Jesus  
Arrazola  
**VIVO**  
Janari  
denda

**IBAIBA-  
RRIAGA**  
GARRAIOAK

Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA



**ARIES:** Ez hago sasoirik onenian, gripia dala ta ez dala egun gehixenak ohian pasa biharko dittuk/dittun. Bitaminak hartu!

**TAURUS:** Eskiatzera fan hintzaneke baltzunia ondiokan be ez jatak/jatan fan. Praktika faltia dok/don ala oindiokan ganoraz ikasteka?

**GEMINI:** Ikasketak ta biharra hire burukomiñ haundixenak dittuk/dittun, baiña lasai, denporiakin beste patxara batekin moldauko haiz.

**CANCER:** Zaindik/zaindiñ hire aho-tsa berba besteik ez dok/don egitten. Bestie be berba egitten laga. Hau izan leike urtenbide bat.

**LEO:** Hilabete gogorra izan badok/badon be ez arduratu, hurrengua hobia izango da eta.

**VIRGO:** Ametsak amets ez dittuk/dittun berez bihurtzen, norberak be aha-legintxo bat egiñ ezker eta ilusiño apur batekin, dana eskuratzeko gertu.

**LIBRA:** Osasunai ez dotzak/dotzan jamonik be egitten. Holan jarraitu ezker laster suston bat edukiko dok/don.

**SCORPIUS:** Aman gonapetik urtetzeko ordua be badok/badon. Parejia topatzeko moduan hago, koittaua!

**SAGITARIUS:** Hiretzako ez jaok zerezanik, topaik/topain heure burua definduko daben zeozer.

**CAPRICORNIUS:** Astuna haiz gero, gauzak ez dittuk behin ta berriz esan bihar, behin ganoraz esan ezker nahikua.

**AQUARIUS:** Danak heuri begira jaozak/jaozan, baten bati egiñ biharko dotzak/dotzan kasu. Ezingo dittuk/dittun holan eduki.

**PISCIS:** Gauza danak jakek/jakane bueltia nahiz eta hik hola ez pentsau. Preparau hadi aldaketetarako.

## Ana M<sup>a</sup> Gallastegi Dendarixa (41 urte)

- Zenbat urte liburudendan? 13.
- Dendia hartu aurretik zer egitten ziñuan? Dormikopen lana.
- Liburudendia ez bazenka zer egiño ziñuke? Beste lanen bat topatzen saiatuko nitzake.
- Zenbat bidar aldatzen dozu eskaparatia urtian? Hilabetian behin edo.
- Sekula fan zara zure gizona saskibaloian jokatzeko ikustera? Bai, sarri.
- Ze sasoittan saltzen da gutxien? Kutso hasieran ta gabonetan.
- Zer egitteko asmuak dakazu Aste Santuan? Hemen inguruan ibilli.
- Lan haundixa emoten dotzue semiek? Bai, bastante.
- Zer egiño ziñuke 300 milioi tokau ezker? Lehenengo bidaia bat eta gero disfrutau.
- Irla bakarti batera zer eruangoz ziñuke? Gizona ta musikia.
- Irakurri dozun azkenengo liburua? Aspaldi ez dot irakurri.
- Saltzen dozun aldizkarietatik zein irakurtzen dozu? Batzutan batzuk ta beste batzutan beste batzuk, baiña normalian dekoraziñokuak.

- Ze oroitzen dakazu gazte denboretatik? Oroitzapen onak, dantza taldean ibili nintzanekuak esaterako.

- Zer da Elgetak dakan gauzarik politena? Asentzio. Ta zatarrena? Poligonua ta Erostarbe ingurua.

- Zein izan da bizitzako momenturik gustokuenak? Umiak jao ziran egunak.

- Telebisako programa edo saiorik gustokuenak?

Pelikulak eta debatiak.

- Zein da zure bizitzako ametsa? Oiñ arte moduan jarraitzia.

- Gaztetan euki dozu "maitasun platonikorik"? Ez.

- Barruko erropendako kolore gustokuenak? Zurixa.

- Sekula ibilli zara gizonan motorrian bakarrik? Ezta zoratuta bez.

- Bizimoduan entzun dozun barriarik onena ta txarre-na? Barri ona, hau treguau, eta txarre-na aman faltia.



Berezitasuna:  
Buztana.  
Pintxo gozoak  
otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

**Goio Sarasua**

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

# Tapia eta Leturia: juerga, dantza, eromena...

Patxik ez zuen arazorik izan jende guztia dantzan jartzeko


Hamabost urte daramatzate elkarrekin. Hasi-eran txapelketaren aitzakian sortu eta geroztik denetik probatu dute. Disko mordo bat, erromeriak, erromeria elektrikoak, Rock kontzertuak, dantzaldiak... Elgetan sekulako giroa sortu zuten Goibekokaleren 4. urteurren ospakizunean.

Musika aukeratu du bikote honek esan nahi zutena komunikatzeko. Hasi zirenean kantuak eta hitzak garrantzia handirik ez bazuten ere, gerora zerbait esan beharra izan eta CD-liburua ateratzera ere heldu dira. Erromerietan neska-zahar eta mutil-zaharren kontuak kantatzen ibili eta gero, diskoetan hainbat bertsolariaren hitzak izan dituzte lagun. "Orduko hartan trikitia mundu ruralean mugitzen zen. Guk, kantatzen genuena zetxobait zaindu

nahian, bertsolariakin egin genuen topo.

**Mundu ruraletik komunikazio mundura**

Tapia eta Leturia Bandekin letretan proposamen zeharo ezberdinak egin genituen. Sarasuaren letra interesanteak ere egon arren, proposamen absurdoetara jo genuen umorea sortzeko letra arinak eginez". Hitzari garrantzia eman dietenik ezin ukatu. Beharbada, hitzeko komunikazioak hemendik aurrera izango du garrantzia, "Hiru Trukurekin hitzetatik abiatuta hasi ginen musika egiten. Ruper Ordorika, Bixente Martinez eta hirurok kantu tradizionalen mundua landu genuen. Mendebaldeko kantutegia zabaltzeko gogoak batu eta pare bat diska grabatu genituen" Literaturarekin elkartzea "Apoaren edertasuna" diskan ere nabaria da. "Garrantzia handia du literaturak. Trikitixa munduan oro har eta orain egiten diren produzio gehienetan hitzak gero eta maila eskaxagoak dira, izan ere, instrumentuari ematen zaio garran-



Leturia eta Tapia, 15 urte elkarrekin.


tzia eta soinu berezia aurkitzen ahalegintzen da ezer baino lehen. Koldo Izagirre izan da literaturarekiko lotura eskaini eta hitza eta musika eskutik ebatuta joan behar dutela erakutsi diguna. Edukirik gabe, filosofiarik gabe, edo zerbait esatekorik gabe, musikak oso giro motza dauka eta literaturak muskarik gabe ere ez du aukera handiegirik irakurle kopurua badakigu eta zenbatekoa den. Elkar laguntzaile dira musika eta hitza".

Trikitian eskarmentu handiko bikotea dugu. Ibilbide luze honetan trikitia gauza asko ikasteko tresna izan dela diosku Leturiak "plazerra

eman digu batez ere. Gauzak esateko aukera eta bitartean festa egitekoa. Guri trikitiarekin tokatu zaigu komunikatzea eta esan behar kendu baino gehiago eman digula trikitiak.

## Trikitia aldatu egin da

Trikitiak soinu asko eza-gutu ditu eta irabazi badu teknologiak aurreratu ahala izan da. Orain dela hamar-hogei urte inguru egiten zen trikitia eta gaurkoa ez dira gauza bera. "instrumentua bera da, ez da bat ere aldatu, soinua lehengo moldean egiten da, baina jende gehiago egotea, musika gehiago eta musikari




M<sup>a</sup>  
**ESTHER**

Tel: 76 81 67

**Iragarri  
zaitez.**

Tel: 78.90.85  
Faxa: 789043



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

**TAPEM, S.A.**

**Trokela eta estanzioa  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK**

gehiago dago, jendea asko ari da konposatzen, beste musika estiloetako eraginak, informazio handia... asko aldatu da musikarien bizitza.

### Tradizionalaren aldeko apustua

Tapiak eta Leturiak azkenengo diskoan tradizionalaren aldeko apustua egin du, baina horrek ez du esan nahi berritzaileak ez direnik " berritzailea ez da inprobisazioak egiten dituen edo bertuosismoan oinarritzen dena, bere horretan geratzen bada, oso hutsala da. Barneragokoa den zerbait aurkitu behar zaio horri, esanahi bat. Musika zaharra da askotan berritzaileena, bestetan konpozizio berriek eskaintzen dute berrikuntza asko, baina ezin da orokortu, bako-

tzaren lana aztertu eta esan behar da berritzaile den edo ez.

Euskal Herrian berritzaile zer den irratia erakusten digute, askotan "Radio Nacional"-ek esaten du zer den ona eta zer txarra eta hori ez da bide egokiena. Jende askok bertso berritu batekin deskubritu du trikitia eta askotan bere herrian kanta zahar hori askoz hobeto kanta-tzen duena egonda. Komunikabideek esaten digute zein diren interesante. Oso zuzenduta dauden zerrendak izaten dira askotan, ez zaie kasu handirik egin behar".

### Giro sana Elgetan

Garai bateko erromeria Intxorta elkartearen izan genuen, giro berezia, oso ona eta sana. "Kalean



Patxi lapurditarrek ikastaro bikaina eman zuen Intxorta elkartearen.

dagoen proposamen bakarra oso estipulatua dagoena da, askotan lotuago dago diruarekin eta dirua ateratzeko

moduakin proposamen on batekin baino." Intxortakoak izan zuen bere xarma eta han egon ginenok badakigu erromeria honek merezi duela. Tapiak dioen moduan, "plazerrerako unea dantzarekin lotua dago eta guk horixe eskaini dugu, formato txikian, formato handidun espektakuloak nahi haina ditugu eta". Giroa sortzean, dudarik ez, eragin handia du taldeko hirugarren partaideak. Patxi du izena eta Lapurditik etorri zen Elgetara han geunden guztiok dantzan ipintzera. Bai lortu ere! Hirukote honek Goibekokaleko laugarren urteurrena ospatzeko izugarrizko giroa jarri zuen. Orain pilak kargatu eta bosgarrenera.



Erromeriako dantzariak jo ta ke dantzan jardun zuten goizalderarte Patxiren aginduetara. Eta kontrapasa eta kontrapasa eta bat, eta bi, eta hiru lau. Eta kontrapasa...

**E**  
**HARATEGIA**  
**A**  
**S**  
**T**

San Roke 6  
Tel: 768168

**EROSLE**

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

**ELKORO TORLOJU LANTEGIA**

**DEKOLETATA ETA FIJAZIO SISTEMAK**

Berraondokua Zg 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

## Trufak

### Sukaldaria: Eider Saratsua

### Elgetako Gaztetxea



#### NOLA PRESTATU:

Ontzi batean esnegaina berotzen ipini eta irakiten dagoenean, txokolate estaldura gehitu. Gelditu gabe mugitu ondo-ondo nahastu arte. Bukatzeko, koiñakarekin busti.

Hozten utzi eta tenperatura egokia daukanean, bolatxoak egin. Gaineratik azukar birindua bota hornitzeko.

#### OSAGAIAK:

1kgr. txokolate estaldura

50 gr. esnegaina

Koilarakada bat koiñaka



#### GOMENDIOAK:

Esnegainak oso beroa egon behar du txokolatea ondo nahasteko. Bolatxoak errazago egiteko, denboraldi batean hozkailuan edukitzea komeni da.

*Estetika eta Masaia*



**MAITE CEBRIAN**

Andrea Mari Plaza, 1


Tel: 943 76 82 72 Elgeta

Komentu Kalea, 12 - 1

Tel: 94 681 63 75 Durango

**HAIZEA**

**TABERNA**



giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.

Tel: 768256

## **Presoak Euskal Herrian Euskaraz**

Nolabait kolaborazioari erantzuten hasteko, ados nago euskara eta euskaldunok ditugun ohitura, bizimodu..azken finean euskal kulturak benetan desberdinak egiten gaituela besteei.

Badakigu, orain dela 23 urte eta baita lehenago ere euskara debekatua zegoela eta poliki-poliki, diktadore baten heriotzaz geroztik euskara gure arbasoen ahotan askatasunez erabiltzen hasi zela. Gaur egun ere euskararen kontrako erasoak aunitz dira (AEKren kontra, euskal eskolen kontra...) nahiz eta bere erabilera askoz aberatsagoa izan. Beraz, honekin, arazoa guttiz politikoa dela adierazi nahi dizut, baina ez gaur egungoa baizik eta aspaldikoa.

Honekin lotuta, "Euskal Presoak E.H.ra" ohiukatzeak ez du etsaiki sortzeko efektua sortzen baizik eta Euskal Herriatik kanpo gaitu dituztenei edonon eta edonoiz gaudela ere beraien eskubideak zanpatuta dituztela, egunero bortxatzen dituztela eta pertsonen eskubideak edozein gartzela politikan gainetik egon behar direla adieraztea besterik ez da. Beraz, Kontseiluak antolatutako ekimenari lotuta, presoak ere beraien lekua dute, nahiz eta bertan ez egon, norbaitzuk ohartarazi behar dituzte zu eta zu bezela pentsatzen duten pertsonen makina bat preso euskara eta Euskal Herria defendatzea gaitik jipoituak, sakabana-tuak, torturatuak... daudela.

Bukatzeko, Bilboko

manifestaldia isila izan zen, baina edonola ere leku eta data zehatz batek ez dute adierazpen askatasuna mugatzen. Honetaz gain, Euskal Herriaren eraikuntzaren aldeko borrokaren bi zutabe nagusi euskara eta presoan eskubideen errespetua dira, eta zuk ongi diozun moduan, guztioi dagokigu euskara eta baita euskaldunak direnak bcr herrira ekartzeko lana egitea.

Olaia

### **Elgetako Herriari**

Josetxo Aranzabal eta Elgetako HBko gutunei erantzuna.

#### **Josetxo Aranzabal Jaunari**

1. Udaletxeak aurrekontu handiagoa izan nahi luke. 1998an 274.983.952 pta gastatu ziren (146.348.458) eta superabita 18.555.326ptakoa izan zen. 1999. urterako 92.000.000 ptako inbertsioak egiteko asmoarekin gaude (auditorium.a Maalako eskailerak, Aixola baserriko bidea, Pagatza, etab. ) Pezetarik gabe ez da inbertsiorik egiten. Bestalde, Elgetako Udaletxeko zorra %12,72koa dela adierazi nahi dugu, 1995. urtean izandako %40aren aurrean.

2. Asentzio: erabilpen publikorako 40.000 metro karratu jasotzen dituzten proiektuak, eta ondorengo 380.000 metro karratuak babes gisa izango lirateke. Proiektu honen beharrenean alde egien jarraituko dugu, Elgetarako onuragarria izango delako.

3. Etxebizitzak:

Udaletxeak bultzatuta 18 etxebizitza egin dira Kooperatiba eran, eta bigarren taldako 12 etxebizitzak eskaririk egon ez delako ez dira egin. Eta Udalak lur sailak dituela eta, demagogia gutxiago txo!! Udalak tamalez, ospital zaharraren inguruan zati txiki bat besterik ez du.

4. Kultur Etxea eta auditoriuma: Udalak 400.000 pezetarekin kultur dinamizari aurre egitea zailtzan jartzen du Josetxo jaunak, aurretik jarritako zeroak ez dute balio, baina bai atzekoak, eta gehien bat Udalak ekitaldian 5.300.000 pta baino gehiago kultur ekintzera eta euskarara zuzendu dituela jakin ondoren: liburutegia, Goibekokale aldizkaria, euskara ikastaroak, euskara dinamizatzailea, hainbat ikastaro, AEK, hainbat kultur ekintza antolatzea, denbora libre, euskara eta kultur arloko langileak...

Auditoriuma: berehala amaituko da eta guztiz onuragarria izango da Elgetarantz, dagokionean ekin-tzertarako beharrezko diru kopuruak zuzenduko direlarik. Lehenengo eta behin eraikuntza burutu behar da eta gero ekintzaz bete.

5. Industria: dirudienek Josetxo jaunak etsipenez oroitzen du Elgetak orain urte gutxi dela jasandako krisialdi larria. Udalak egin behar duena egin du: lanpostuak sortzeko beharrezko osagaiak jarri: gestioa, gogoia, ilusioa eta konpromesua. Gaur egun, familia askoren soldata Elgetako lantegietatik dator, eta euren artean gazte ugari daude. Maestria, injeniaritza, peritu-

tza eta halako ikasketak egindako gazteek, euren herrian bertan izan dute aukera proiektuak garatu eta burutzeko.

Egindakoa begi guztiek ikusten dute batzuenak izan ezik, eta benetan esanda, ikusterik nahi ez duen bezalako itsurik ez dago.

#### **Elgetako HBri:**

1. Asentzio: Asentzioko proiektuaren asmoa, aisialdirako eta jolasaldirako toki zabalago sortzea da (gaur egun saturatua). Izango den toki publikoan bertako zuhaitzak landatuz pinadiak ordezkatzeko dira. Guk dakigunez behintzat, zuhaitza eta zementoa ez dira berdinak.


Azkonabitxako antena jartzeko baimena, beste komunikabide batzuei bezala, beharrezkoa zelako eman zen. Horrez gain, 7.500.000 pezeta baino gehiagoko kopurua kobratu zen egindako gestioagatik.

2. Elkarrizketa: Alkateak inoiz ere ez dio eskatu Goibekokale aldizkariari elkarrizketarik egiteko, eta Elgetako alkateari erreportajea egiteko erabakia aldizkariak berak bakar bakarrik hartu du, azaldutako 8 gaiak aldizkariak berak aukeratu zituelarik. Guk geuk ez dugu eztabaidatzen erreportajea eta guztiz ziur gaude aldizkariak jokaera berbera izango lukeela alkatea HBkoa izan balitz.

#### **Elgetako Udaletxeko EAJ/PNVko zinegotziak**

Jesús Mari Montiel  
ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK  
Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719



**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

**ANA LIBURUDENDA**

Zatoz beste  
dimentsio batetara!

Tel: 768078

## Elkoro eskuz binakako txapelkun

Asier Olaizola bikote zuela 22 eta 15 gailendu zitzaien Goñi II eta Zezeagari

Logroñoako Adarragak egun handia bizi izan zuen elgetar kirolarentzat. Aitor Elkorok, Olaizola I. lagunduta, Espainiako eskuz binakako txapela lortu zuen, profesional mailan dagoenetik lortzen duen bigarrena (lehena Capellan errioxarrarekin batera lortu zuen).

Finala ez zen maila handikoa izan. Frontoia goitik behera betè zuten jarraitzaileek ez zuten partida ona ikusteko aukera izan, baina final batean hori gutxienekoa da, batez ere garai-irten eta gero. Bat aipatzekotan, txapelketa bikaina burutu duen Goizuetako aurrelaria aipatu behar, Asier Olaizola.

Nafarrak, Aitorrek izandako eskuetako arazoak direla medio batez ere, erantzunkizun handiagoa hartu behar izan du eta bikain erantzun du. Hasierako dudak alde batera uztea lortu du. Elkorok, ez du ohiko maila erakutsi, baina txapela bereganatzea lortu du. Zer esan nahi du horrek? Alde batetik ez duela beti ondoen jokatzen duenak irabazten eta bestetik enpresen banaketak sortu duen maila jeitsiera. Inori meriturik kendu gabe, enpresa bietako pilotarik batera jokatutako balute orain ez ginateke lerro hauek idazten ibiliko. Eta berdin gertatzen da Asegarce enpresak egindako txapelketan.

Orain, Elkoro buruz-burukoa prestatzen hasi beharko da. Ez da "benetako" buruz-burukoa izango, lehen aipatutako arrazoiengatik. Galtzaileak? Betikoak. Jarraitzaileak eta batez ere pilotariak.

### Euskal Liga Elgetara

Mailaz aldatuz, eta afizionatuetaz ari gara, Oskar-biko ordezkariak beste txapela bat eskuratu dute. Oraingo honetan, Euskal Ligako nagusien mailan izan da. Aitor Uberak eta Unai Iñurrategik Fertzxu eta Fuertesek osaturiko bikotea gailendu zuten 22 eta 17. Partida nahiko erraza, hasiera-hasieratik Oskar-biko ordezkariak

goitik behera nagusitu baitziren.

### 4 t'erdia

Ia 400 pilotarik hartuko dute parte aurtengo 4'erdiko txapelketan. Normala den bezela bizkaitarrak eta gipuzkoarrak izango dira ugarienak. Errioxarrak, arabarrak eta nafarrak ere ez dira faltako.

Faboritoak pasadan urtekoak izango dira, hala nola, Muruamendiaraz, Otaegi... baina seguruenik ezustekoak ere izango dira, batez ere, agortezina den nafarroako harrobitik.

## "Estampa" berriz ere txapelkun

Bigarren urtez jarraian Eibarko txapelketa bereganatu dute

Ligako azken partidaren Pescaderias Pro 35 eta 32 gailendu ondoren hirugarren aldiz txapelketa bereganatzea lortu du Elgetako taldeak. Ez du txapelketa ona jokatutako "Estampa" k, baina burututako defentsa bikainari esker talde guztiak oso puntu gutxitan utzi dituzte. Hau izan da txapelketa eman dien arrazoi nagusia, saskira begira - urte osoan zehar - nahiko makal ibili baitira.

Orain, hilaren 17tik aurrera, kopako titulua izango dute jokoan. Pescaderias Prorekin eta Vicky Leytonekin batera faborito nagusiak dira txapela lortzeko. Aurten ere, pasadan denboraldiko "dobletea" lortzea posible da.




Estampaciones Elgetak beste titulu bat lortu du.



**IRAMA**

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatu: 247262  
tel: 789057-768025




Kartetan jokatzen giro egokia

Tel: 768093

**Patxi Taberna**

## Xabier Aranguren: "gutxitan bada ere kontrolak egiten dizkigute"

Xabier Aranguren, Elgetan ditugun beste txirrindularietako bat dugu. Hamazazpi urte bete dituen gazte honek aurten du jubencil mailako lehenengo denboraldia. Gaur egun LOGSEko 3.maila ikasten dihardu Bergarako institutuan. Martxoaren zazpian ekin zion aurtengo txirrindularitza denboraldiari berrin jakin asmoz berarengana jo dugu.



*Bergarako Sumofic taldean ari da Xabier Aranguren.*

**-Noiz hasi zinen bizikletan ibiltzen? Nnon?**

Hamahiru urterekin hasi nintzen bizikletan, infantil mailan. Bergarako SUMOFIC taldean eta hor jarraitzen dut. Hasiera batean futboleko jokatu nuen, baina azkenean alde batera utzi nuen ez bainuen gogoko.

**-Zeintzuk izan dira zure emaitza esanguratsuenak azken lau urteotan? Infantiletan gehienetan hamar lehenengotan sartzen nintzen batez ere bigarren urtean. Gero kadeteetan seigarren postu bat eskuratu nuen eta iaz hamaikagarren bat. Gero kadeteetako lehenengo urtean taldekako erlojupekoan ere emaitza ona lortu genuen.**

**-Nola joaten zara lasterketara?**

Nola taldea Bergarako denez bertara jeitsi beharra izaten dut aitarekin zein anaiarekin. Gero bertan denok alkartzera eta furgoneta batean joaten gara joan behar garen lekura.

**-Maila profesionalen nor da gustokoen duzun txirrindularia? Eta afizionatueta?**

Profesionalen Olano, eta afizionatueta ez daukat inolako preferentziarik.


**-Inoiz izan al duzu istripurik edo erorketarik?**

Orainarte zorrea izan dut eta ez naiz sekula erori. Behin erori nintzen, baina entrenamendu batean, gorpila bihurtu batean nirtetean.

**-Elikadura zaintzen al duzu?**

Ez dut dieta berezirik jarraitzen, baina pasta dexente jaten dut. Laisterketa egunetan bai, elikadura zaintzen dut. Lasterketa arratsaldean bada bazkaltzeko arrosa jaten dut. Adibidez, gaur goizean lasterketara joan aurretik goizeko bosterdietan jeiki eta arrosonea, arraultza egosia, urdaiazpikoa, eta zuku bat hartu ditut.

**-Zer moduz gaurko las-**



*Olano da gustokoen duen txirrindularia.*

**terketa?**

Gaur Eibarren geneukan lasterketa. Iazkoak baino luzeagoak dira aurten eta hori nabarmentzen da. Gaurkoak 86km. izan ditu. Elgoibarren ihes egin dut beste txirrindulari batzuekin; 50 km ihes eginda eman dugu, baina tropelak helmugatik gertu harrapatu gaitu.

**-Zenbateko entrenamenduak egiten dituzu?**

La egunero bi ordu gutxi gora-behera entrenatzen dut. 60-50 km. inguru. Bai Bizkaia aldera edo Gipuzkoa aldera jotzen dut.

**-Egiten al dizuete doping kontrolak?**

Guri ere oso gutxitan bada ere, kontrolak egiten dizkigute. Niri orainarte ez didate batere egin, baina nire taldeko bati egin zioten kadete mailan. Noski ez zuen positiborik eman. Hala ere, bat edo beste harrapatu ei dituzte azpiko mailetan.

# ERREKALDIA

## Ermita: San Kristobal

**Jaia:** Uztailaren 10ean

San Kristobal egunaren bezperan edo bezperaurrekoan hasten dira jai antzean pinua jasotzearekin. Hau iluntzean egiten da eta ondoren auzoko gazteek txokolate jana egiten dute.

Normalean bi edo hiru egunetan izaten da erromeria, horietatik San Kristobal eguneko auto bedeinkaziñoa delarik ekintzarik famatuena (kotxeak lorez adornatuta bide baztarrean egoten dira parkatuta eta abadeak banan-banan bedeinkatzen ditu). Dantzaldiak gauz izaten dira eta San Ferminetara joan ez direnen topaleku.

Gainera martxoko egun baten meza ospatzen dute auzokoan alde (Hemandadeko Meza) eta beste meza bat maiatzak batean.

Auzotarren bat hiltzen denean bederatziruareko meza ere bertan ospatzen da.

### Baserriak eta etxeak:

- Loidi Etxebarri
- Loidi
- Loidi Bolu
- Loidi Bolu berria
- Askasibar
- Askasibar Bolu
- Askasibar Bolu berria
- Belastegirena
- Meltxorrena (Unamuno Berri)

- Aldai Etxebarri
- Aldai Gaiñekua
- Aldai Aurrekua
- Aitzol
- Gaztelu
- Aldai Azpikua
- San Kristobal
- Elhone (Elkoro Berezibar)
- Bitzibar (Berezibar Erdikua)
- Bitzibar Barrena (Berezibar

- Barrena)
- Edui (Eduegi)
- Amuskibar
- Amuskibar Bolu
- Gaittao Aldekua (Garitano A.)
- Gaittao Gainekua (Garitano G.)
- Gaittao Erdikua (Garitano Markezkoa)
- Gaittao Barrena (Garitano B.)
- Osingain

Bi urte pasa dira, Elgeta-koen ostean, Angiozar Bailarako baserri buruzko ataltxo hau hasi genuela.

Bi urte hauetan zazpi auzotan banatuta dauden (Asentzio, Azkuneta, Errekaldia, Goimendi, Mainddao, Parteitti eta Zabaletamendi) laurogei ta sei baserriren berri eman dugu, batez ere etxearen ezaugarrietatik abiatuz denboran eta estiloan eraikuntza kokatuz eta, ondoren bertan bizi direnei edo izan zirenei buruz, jakin ahal izan dugun neurrian, argitasunak emanez. Hurrengo atalean Kaleko baserriekin bukaera emango diogu errepaso honi.

Laurogei ta sei baserri asko dira, baina gehientsuenak egitura berdintsuari erantzuten diotela ohartu gara. Produkzio gune izateko sortutako eraikuntzak dira, ganade-



*Auzoa da baserriaren kokagune naturala..Argazkian Azkuneta auzoa.*

ritzeta eta nekazaritzaren inguruan, eta baita familia baten sorleku eta izen emale, oraindik oso bizirik dagoelarik bailara honetan pertsona baten izena esan ondoren etxearen izen asatea, abizena esan beharrean, euskal abizen gehientsuenen sorrera nola izan zen gogoratuz.

Jakin izan dugu, gainera, gaur zutik dirauten baserri etxe batzu defentsarako ere sortuak izan zirela (Arregi-torre, Lamarin,...), Ertaroko borrokal dietan parte hartu zutelarik gure herriko seme eta alabek (Andaluziako konkistan, Arrasate erre zutenekoan, Ahaide Nagusien arteko gatazketan,...) edo oraintsuagoko

Ameriketako Oesteko eta Hegoamerikako historia hurbilean.

Auzoaren egitura soziala osatuz antolatuta jarraitzen dute gaur egun ere baserriok. Batak bestearekin duen lotura, auzolana, bizirik mantenduz eta nortasuna iraunaeaziz. Auzoa elizaren inguruan dago antolatuta, bailara,



orokorrean, Parrokiaren inguruan dagoen bezala, eta hortik maiordomotza edo elizarako ardura urtero auzotarren artean banatzea.

Aspaldiko instituzioen iraupena ere azaltzeko aukera izan dugu, hala nola San Sebastianen Kofradia, sortu eta 520 urte geroago ere bizirik dagoena, eta garai baten etxe guztietako nagusiak batu zituen bere baitan.

Familia askoren jatorria izan dira gure baialarako baserriak. Horietako familia batzuk ohore haundiak lortu eta beste leku batzuetan eraiki zituzten bere jauregiak, adibidez Orbetarrak Valdespinako Markesadoa lortu zuten eta Ermuan eraiki zuten jauregi bikaina, nahiz eta jatorrizko etxearekin loturarik galdu ez, gaur egun ere etxearen jabe izaten jarraitzen



**Auzolana izan da bizi-iraupenerako eta elkarrenganako loturak sendotzeko oinarri nagusia. Argazkian Maindaako auzotarrak bideginan.**

dutelarik.

Beste familia batzu izena ematen dioten etxean bertan edo ingurukoan jarraitzen dute bizitzen ehundaka urte geroago: Loidi, Lamarain, Arezkurenaga, Otxoa de Angiozar, Alzuaran, Aldai,

Mendigutxia, Pagadigorria, Garitano, Ugarte, Askasibar, etabar... gaur egungo angiozartarrek daramatzaten abizenak dira, ez beti lehenengo lekuan, eta bertako baserri etxeetatik hartuak, familia hauen iraupena jatorrizko lekuan adieraziz.

bilera, zein behar deduki duen garai bakoitzean, nola ulertu duen bizitza eta zeri eman dion garrantzia (askotan animaliei norberari baino gehiago)... errota, jauregi, etxe, baserri, txabola, dorrea, ... denak bizitza moeta baten ezaugarri eta elkarren osagarri.



**Dorretxea da harrizko eraikuntzetan antzinakeoena Euskal Herrian, oraindik jende gehiena egurrezko etxetan bizi ziren garaiko lekukoa. Argazkian Arregi-Torrerako aspaldiko sarrera ate zaharra.**

Etxea eta familiaren arteko lotura adierazteaz gain bi hauen artean eta elizaren arteko harremana ere azaldu dugu. Hirukote honek ezaugarri etnografiko-kultural ugari sortzeko ahalmena izango du, gehienak hildakoekin lotutakoak, baina baita bizitzako erritoekin ere: animalien bedeinkazioa, umeen bedeinkazioa, loreen bedeinkazioa, konjuroak, ... gizakia eta natura menpera-ezinen arteko harremanez hainbat gauza aditzera ematen digutenak.

Eta etxe bakoitzak kanpotik zein barrutik bertan bizi izan direnez eta bizi direnez ere hitz egiten digu. Bakoitzak zertarako ulertu duen etxearen era-

Landutako landareei buruz hiru arotan banatu dugu azken bostehun urtetako ibilbidea: gariaren eta arta-txikiaren garaia, artoaren garaia eta, azkenik, patata eta babarrunaren garaia, landare hauek eduki duten garrantzi ekonomikoa eta bizi-iraupenerako oinarri izateagatik. Alderantziz, gaur egun baserria pinuaren garaian dela esan genezake, bizimodua betse iturri batzuetatik ziurtatu denean pinuak estali du eta lehen solo eta zelai zena.

Beraz, irakurle, datorren alean Kaleko baserriei emango diegun begiratuaz bukatuko dugu ibilbide hau.



Horixe da asuntua: zetarako dan erabakitzia. Eta hori erabakitzen dogunian beste dana garbi geratuko da. Baiña gehixau nahastau baiño lehen hasi egingo naiz gauzak ordenan jartzen.

Gauzia da aurreko baten Oñatin gazte bat hil zala eta nahikua zeresan emon zittuala honek heriotziona. Batetik gaztia zalako eta bestetik zeresan horrek ziralako jende ugari bilddu zan entierrokuan eta horri gaztiorri kantu bat espezial gustatzen ei jakolako, ba, abadiari eskatu zotsen entierrokuan hori kantuoi kantatzia. Baiña horrek abadiorrek hori kantuoi elizakua ez zala eta ez zeguala holakorik egitteik. Familixakuak disgustua eta hola akabau zan asuntua.

Baiña hurrengo domekan Aloña Mendi elkarteko 50. urteurrena izan eta haiñ egun haundi eta inportantia ospatzeko, ba, horren elkartiorren himnua kantau zebeñ elizan eta hor sortu da sal-

## Zetarako

hasierako pregunitorrek: Zetarako da elizia. Errezatzeko hala egun batzutan jende asko bilddu eta ospakizunak egitteko (Entierro, Bataio, Komunio, Ezkontza).

Egixa esan azken

alde ederra dago elizan dotore-dotore ezkondu edo Ayuntamientuan iñolako lustre barik ezkontzian artian, eta entierrotakuan elizatik kanpora ezer egin leikenik iñoi burutik pasau be ez jako egitten.



Nik neuk ez dot sinisten eta oso gutxitan faten naiz elizara, baiña han ikusten dotenak joateko gogo haundirik be ez dosta emoten. Esan biharrekua da neu faten naitzenian lehen aittatutako ospakizunetako bat izaten dela eta hor egunotan grabiaua izaten da asuntua.

tsia; izan be, horren gaztiorren gustokua elizakua ez bazan Aloña Mendin himnua be oso elizakua ez da.

Eta hemendik danetik urtetzen dau

aldixan bigarren horretarako besteik ez dau erabiltzen elizia jente batek. Sinistu edo ez sinistu makina bat jentek erabiltzen dau elizia euren ospakizunei dotoretasun pixkat emoteko. Izan be,

Dana dala, ospakizuna egin eta errezau bixak batera be egin leikez, errezatzia be ospatu leike, baiña asuntua gaur egun dauan moduan ez dot uste oso ondo dagonik. Baten batek konpondu biharko dau eta bada-kitt elizan badiala batzuk hori konpondu guran dabizenak, horrei eskeini nahi dotset hau euren etxetik kanpo be euren alde dagozen batzuk bagarelako, oso gutxi izan arren.

Jabier Arantzeta

**Zetarako da elizia. Errezatzeko hala egun batzutan jende asko bilddu eta ospakizunak egitteko (Entierro, Bataio, Komunio eta Ezkontza).**


**Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.**

Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



**KONTXI  
ARRANDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009



Erretratua: Juan Luis Garcia

## Ezkonduak ezkondu barikuen kontra jokaturako futbol partidua

**A**urreko batian emakume ezkonduen taldian erretratua ifiñi ginuan. Oinguan gizonezko ezkonduak jartzia pentsau dogu eta hurrengo batian haber ezkondu barikuen taldeko erretratua jartzia lortzen dogun. Holan, orduko futbol partiduetako erretratuen errekopilaziñua eukiko ginuke.

Besteik barik, honen erretratuonen inguruko zeozer kontatzera pasatuko gara. Oin dala 18 urte inguru etaratako erretratua da. Gaur egunian industrialdia dan eta orduan futbol zelaixa zan lekuan jokatu zan partiduan etaratako erretratua da. Hemen, Kuadrillako danak ezkonduak ziala eta, hau izan zan han urteko gizon ezkonduen taldea.

Ez dou jakin partidua ze emaitzakiñ amaittu zan, baiña pentsatzen dogu danak ondo pasau ebela umetako sasoiekin akordautu.

Tente darenen izenak ezkerretik eskumara:

**Jabier Bolinaga, Antonio García, Ezezaguna, Pako González, Imanol zabala, Aurelio, Juan Luis Ubera eta Jose Luis Gorosabel.**

Makurtuta darenen izenak:

**Manolo Makarro, Juan Luis García, Jose Iñaxio Erostarbe, Francisco Llamas, Juan Mari Arantzeta eta Luis González.**



Plastikozko  
ontziak



Latak



Tetrabrikak



...Zure  
esku dago

“Buertaka - Buertaka Birziklatuz”

**D**atozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

**E**ta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zabortegiak ere denbora luzegorako izango ditugu.

**Gutxitu hondakinak,  
berriz erabili eta birzikla  
itzazu**

**Guztion mesedetan  
izango da**



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA  
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA